

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

2.- ALFREDO ARGUIBIDE EQUISOAINEK MEZKIRIZKO UE-9 UNITATEAN SUSTATU DUEN MUGAKETAREN ALDAKETA XEHATUAREN HASIERAKO ONESPENA.

Alfredo Arguibide Equisoainek Mezkirizko UE-9 Exekuzion Unitatean sustatutako aldaketa xehatuaren hasierako onespeneren iragarkia 2023ko urriaren 5eko 208. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen.

Jendurrean jartzeko aldia amaitu eta erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu ez bada, behin betiko onartuko da.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- Mezkirizko UE-9 exekuzio unitatearen aldaketa xehatua behin betiko onartzea. Aldaketa hori Alfredo Arguibide Equisoainek sustatu du.

2.- Espedientea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 14:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.